

Zebarri

8. zenbakia 2004ko abendua

Etxebarriko Udal Euskaltegiko ikasleek egina

GABON ZORIONTSUAK

ETA URTE BERRI ON!

**Barruan
zer?**

• Euskara ikasteko aholkuak

• Tranbia

• Elkarrizketa: eskolako jangela


• Lo egiteko aholkuak

• Bitxikeriak

• Gabonetako loteria



Nola ikasi euskara ondo eta azkar



Euskaltegiko ikasleok egunero etortzen gara klasera euskara ikasteko asmoz. Baina klasetik kanpo, zer egin dezakegu euskaraz ondo eta azkar ikasteko? Pentsatzen jarri gara eta hona hemen gure dekalogo:

1. Euskaraz hitz egin euskaldunekon, eta ikaskideekin (eskolatik kanpo ere bai). Baita umeeekin ere.
2. Umeeekin euskaraz jolastu.
3. Euskarazko irratia entzun eta ETB1 ikusi: marrazki bizidunak, dokumentalak, kirola,...
4. Euskaraz irakurri: umeei eskolatik ekartzen dituzten oharrak, publizitatea, gutun elebidunak, egunkariko berriak, ipuinak, liburuak.
5. Antena jarri kalean, trenean, autobusean.
6. Giro euskalduna bilatu: herri euskaldun batera joan larunbata edo igandea pasatzera, artisau-azoketara joan, herri-kirolak, euskal dantzak ikusi, etab.
7. Etxean, erosketa-zerrenda euskaraz egin, ohar txikiak euskaraz idatzi.
8. Ordenadore bidez euskara indartu: euskarazko jolasak, web orriak, etab.
9. Euskal abestiak entzun eta ulertu, edo ikasi.
10. Barnetegira joan.



Etxebarriko zenbait garraiobide

Etxebarri Bilbo ondoan dagoenez, baditu zenbait abantaila eta baita zenbait desabantaila ere. Abantailen artean, dudarik gabe, garraiobideak azpimarratu beharko genituzke. Artikulu txiki honetan Etxebarrin izan diren zenbait garraiboderen aipamena egiten dugu.

Trena

Bizkaiko hiriburuaren garapen ekonomiko eta demografikorako oinarritzko faktorea trenbidearen eraikuntza izan zen.

1882.urtean, Bilbo eta Durango arteko lehenengo trenbide sarea zabaldu zen. Geroago, Gernika (1888) eta Zumarragara (1889) ailegatzen ziren sare berriak egin zituzten.

Trenbidea, Durangaldeko ekonomiaren hazkundean eragin handia izan zuenez, laster, komunikabideak hobetu zitezten tranbia irekitzeko posibilitatea ikertzen hasi zen. Hala ere, Arratia haranaren ez zegoen trenbiderik, orga batzuez baliatzen ziren Lemoako trenbide geltokira ailegatzeko.

1900.urtean, trenbidea zela eta, Bilbo eta Bilbo handiko guneetan, %174 hazi zen biztanleria. Arratian berriz, komunikabiderik ez zegoenez, biztanleriak behera egin zuen.

Tranbia

1899.eko utarriaren 9an, sortu zen konpania. Hasiera batean motorra baporez ibiltzen zen, baina bultzatzaileen asmoa elektrizitatez ibiltzea zen.

Handik aurrera, gunen industrial nagusiak zeharkatu zituen; Bolueta (Begoña), Baskonia (Basauri), Galdakao eta Zaratamo aldea.

Garai hartan, Arratian zenbait bainuetxe ireki zituzten, osasun turismoak arrakasta handia zeukala ikusiz.

1956.eko abuztuaren 1ean, Plazakoetxe-Galdakao eta Lemoaren artean zegoen ibilbidea kendu egin zuten. Horren ondorioz, ibilbidea zatituta geratu zen, alde batetik Bilbotik Galdakaoa 10 kilometroko ibilbidea geratu zen, eta beste aldetik Lemoatik Zeanurira 15 kilometroko ibilbidea.

ARRATIAKO TRANBIAREN AMAIERA

Baina tranbien jabeak ez zuten inbertitzen tranbian eta mende



hasierako kotxeak erabiltzen jarraitu zuen jendeak. 60ko hamarkadaren hasieran, Arratiako tranbia desagertzeaz zegoen, gero eta trafiko handiago zegoen Gasteizera joateko Barazarreko meudatetik; horregatik, errepideak handitu egin behar izan zituzten eta hori tranbiaren kontra zihoan.

Tranbiaren amaiera luzea eta motela izan zen. Desagertu baino lehen, haien lekuan beste garraio publiko bat antolatu behar zuten eta hori egiteko, lanak oso zailak izan ziren.

1962.eko abenduaren 5ean, tranbiaren zerbitzuak amaituko zirelakoan zeuden. Dena den, tranbiaren lana egingo zuten autobusak ez zeuden prestatuta eta tranbiak urte batzuk gehiago ibiltzen jarraitu behar izan zuen. Bi urte geroago autobus ibilbideak prest zeuden eta 1964.eko azaroaren 30an, tranbiaren zerbitzuak amaitu egin ziren.

Baina benetan hura izan ote zen tranbiaren amaiera? Hona hemen zer irakurri dugun Euskotrenek duen web-gunean: "Etxebarri eta Atxuri artean gaur egun dagoen trenbide linearen orde, 2012. urterako tranbia zerbitzua ezartzea aurreikusten da."

Metroa

Datorren urtarrilaren 15ean Metroa Etxebarrira helduko dela eta, jai itzela ospatuko omen dugu. Metroa abiatu zenetik ia 10 urte igaro dira hona heldu aurretik, 1995ean jarri

baitzen martxan.

Itxaronaldia etxebarritarrok espero genuena baino zertxobait luzeagoa izan da zenbait arazo izan direla medio, alde batetik lanen atzerapena eta bestetik desadostasun burokratikoak. Hala ere, azkenean lortu dugu Bilbo Handiarekiko lotura azkarra, eroso eta garbia edukitzea.

Zer ondorio aurreikusi ditzakegu Metroaren etorrerarekin? Lehenik eta behin, 3 minuturo izango dugu Bilbora joateko aukera, atzera-aurrera haundia dabilen orduetan behintzat. Bigarrenez, horrelako garraiobide bat eskuragarri izateak jende asko animatuko du hona bizitzera etortzera. Eta azkenik, kalitatezko zerbitzu batek gure bizi kalitatea hobetzeko aukera emango digu. Ongi etorri, Metro jauna!



Jangelako begirale bati egindako elkarrizketa

San Antonioko ikastetxe publikoan lan egiten du gure langileak. Jantokiko begiralea da, eta lau urte daramatza bertan lan egiten.

• **Zein da zure ordutegia?**

12:30etatik 15:00ak arte.

• **Zenbat umek bazkaltzen dute egunero jantokian?**

110 ikaslek.

• **Elkarrekin bazkaltzen dute guztiak?**

Hiru txanda egiten dira. Lehenengo txanda

12:30etan sartzen da, eta ordu bata eta

laurdenetan irteten da, eta bost urteko umeak dira.

Bigarren txanda ordu bata hamar gutxiagotan sartu eta ordu bata eta erdietan irteten da, horiek haur-hezkuntzakoak dira.

Hirugarren txanda DBHkoak dira, eta ordu biak hamar gutxiagotan sartu eta ordu biak eta hamarrean irteten dira.

• **Zure ustez nolakoa da janaria?**

Ez da etxekoa bezain ona, baijan goseak egoten dira, eta umeek jan egiten dute.

• **Normalean, euskaraz hitz egiten da jantokian?**

Bai, asko erabiltzen dugu.

• **Zure ustez, langile gutxi zarete umeak zaintzeko?**

Bai, lau zaintzaile gara 110 ume kontrolatzeko, baina delegaritzak esaten du nahikoa dela.

• **Zer egiten dute ikasleek jan eta gero?**

Batzuk liburutegira joaten dira, eta beste batzuk patiora joaten dira, jolastera. Momentuz, ez dago tailerrik, baina posible da tiler batzuk antolatzea.

• **Konta ezazu anekdota bat:**


Badaude bost ume Marokotik etorri direnak. Haientzat janari berezia prestatu behar dugu. Gaur, adibidez, indaba gorriak zeuden jateko (txorizo eta guzti), baina haientzat indabak besterik gabe ipini ditugu. Ume txikiek ez dute erlijio kontua ulertzen, eta denek bezala jan nahi dute.





Bitxikeriak


Tximinoek zergatik jaten dituzte bananak?



Ikerlariek ez dakite. Izan ere, munduko tximino espezie gehienak bizi diren lekuetan ez da fruta hori hazten. Beraz, tximino horiek bizirauteko eta elikatzeke, ez dute banana jaten. Zoologiko eta halakoetan ordea, tximinoak bananak jaten ikustea da ohikoena. Zergatik? Ikerlariek diotenez, tximinoek frutaren beraren koloreagatik edota zaporeagatik aukeratzen

dute banana. Hainbat ikerketa egin izan dira tximinoen elikadura ohiturak aztertzeke, eta hori koloreko objektuak gustuko dituztela ondorioztatu ahal izan dute. Hala, Erresuma Batuko Blair Drummond safarian hori koloreko landare batzuk landatu omen zituzten tximinoen bizitokian eta hauek denbora gutxian guztiak jan omen zituzten.

Zergatik esaten da katuek zazpi bizitza dituztela?



Katuak indar eta erresistentzia handiko animaliak dira. Baina ez dituzte, bideo-jokoetako pertsonaiek ez bezala, zazpi bizitza. Dena den, askotan esan ohi da badituztela. Litekeena da esaera horrek oinarri esoterikoa izatea. Izan ere; kultura askotan zenbakiek esanahi berezia dute. Zazpi zenbakia,

esaterako, zorte onaren adierazgarri zen aintzina. Katuek egoera zailenetan ere onik ateratzeko izugarritzko abilezia dute, edo, agian, zorte kontua izango da. Esaera ospetsu hau, berez, zorte kontu horri lotuta dago; noski, bideo-jokoak baino lehenagokoa da.

Zergatik galtzen dituzte zuhaitzek hostoak udazkenean?



Badirudi zuhaitzek hostoak galtzeko zenbait arrazoi daudela. Bat jasaten duten lehorketa da. Horregatik zail egiten zaie enborretik hostoetara ura iristea, euren nerbioetan sortzen sartzen zaien airea dela medio. Beste arrazoi bat hormonetan datza. Hostoak

haztean, hazkuntzarako hormonon maila handia da, auxinarena alegia. Baina hostoak eta fruituak heltzeko abszisina eta etileno hormonak ere agertzen dira, eta bi hauek fruituak heltzea ez ezik erortzea ere eragiten dute.



Zer egingo zenuke gabonetako loterian 6.000€ egokituz gero?



Ez nago seguru zer erosiko nukeen diru horrekin. Beharbada, brilante bat erosiko nuke inbertsio bezala, eta agian familia osoarentzako bidaia bat ere bai. Baliteke etxerako altzariak ere erostea.

Arazorik ezean ez nuke kotxerako ezer erosiko eta zalantzarik gabe, ez nuke zentimorik ere gastatuko zirugia estetikoan.

H.C.



Ez dut uste inoiz loteria tokatuko zaidanik, baina 6.000 euro tokatuko balitzaizkit, zalantzarik gabe oporretara joango nintzateke, hala ere seguru nago ez nukeela diru guztia gastatuko. Agian oparitxo bat egingo nioke emazteari, esate baterako 200.000 pezetako eraztunen bat edo. Baina ordenagailua edo telebista erostea... ezta pentsatu ere! Egia esan, ez dakit diru guztia gastatuko nukeen edo zerbait gordeko nukeen beste aukera baterako. Zalantzan nago hainbeste diru ondo gastatzen jakingo nukeen edo ez.

X.



6.000€ tokatuko balitzaizkit ez nuke zalantzarik zertan gastatu. Hasteko gurasoak eramango nituzke afaltzera, hori bai, nora joan ondo pentsatu ondoren. Inondik inora ez nituzke lagunak gonbidatuko, oso zuhurrak dira eta. Gurasoak gonbidatu ondoren, eta geratuko litzaidakeen diruarekin eramateko ordenagailuak erosiko nituzke bai nebarentzat, bai niretzat. Seguru nago lurrinak ere erosiko nituzkeela baina argi ikusten ez dudana bidaiaren bat egingo nukeen da.

V.C.



Milioi bat edukiko banu, seguru nago logela bat erosiko nukeela, nirea zahar dagoelako eta egun hauetariko batean ohea apurtuko baita. Agian, opariak egingo nizkioke nire familiari, batez ere arropa, badirudi aurtien negu gogorra edukiko dugula eta. Egia esateko, ez dakit baina bidaia txiki bat egingo nuke nire senargaiarekin aspaldi ezin izan garelako joan. Ez dut uste bitxiak erosiko nituzkeenik ez zaizkidalako gustatzen eta inondik inora ere ez nituzke erosiko ez autoa ez autoaren gauzak, nire kotxea berri dagoelako.

S.Z.



Sei mila eurekin zalantza izpirik gabe arropa erosiko nuke, eta beharbada zerbait utziko nuke oporretara joateko, irla batera, Kanarietara adibidez. Egia esateko ez dakit etxeko gauzak erosiko nituzkeen ala ez. Ez dut uste autoa erosiko nukeenik, eta inondik inora ere ez nituzke erosiko erabiliko ez nituzkeen gauzak.

M.O.



Zalantza izpirik gabe arropa asko erosiko nuke. Gero, baliteke norabait joatea, baina... leku dotorerara edo. Akaso irla batera joango nintzateke oporrek pasatzera. Egia esan, egun gutxi izan beharko lirateke, 10 edo, bestela hilabete oso batean aspertu egingo bainintzateke. Segur aski ez nuke erosiko bitxirik ez zaizkidalako asko gustatzen, eta inondik inora ez nuke erosiko lantzarik, beldurra ematen didalako hondartzak.

R.S.



Urte barri, euskarak ere igarri

2005. urtea ate joka dugu. Betiko moduan, urte berriak asmo onez eta ideia berriz etorriko zaigu. Guk ere, urte berriari begira, geure ahalegintxo gehitu nahiko genuke. Euskaraz ikasten dabiltzanak eta euskaraz dakitenak harremanetan jarri, herriko euskaldunok elkar ezagutu, eta euskara kalera atera, horixe duzu gure erronka.

- Euskaraz berba egiteko norbaiten bila bazabiltza, baina ez badakizu Etxebarrin non aurkitu dezakezun horrelakorik?
- Euskaltegian duela hiru urte hasi, baina euskaltegitik kanpo ez baduzu ia aukerarik euskaraz egiteko.
- Euskaltegian ikasitakoa benetan praktikan jarri nahi baduzu?
- Herrira etorri berria bazara, eta ez baduzu ia inor ezagutzen. Euskalduna izanda, euskaraz egin nahiko bazenu?

BERBALAGUN proiektua aurkeztu gura dizugu.

Zertarako?

Kalean euskaraz egiteko aukera izateko, jende berria ezagutzeko, Etxebarrin euskara kalera ateratzen laguntzeko...

Horretarako, astean behin ordubete eskatzen dizugu.

Interesik baduzu, zatoz Udal Euskaltegira edo Euskara Zerbitzura. Bekosolo parkean gaude.

Etxebarrin, euskarak ere nabarituko ahal du urte berria heldu dela.

Bekosolo Parkea • Tlf. 94 426 28 02



**Bizkaiko Foru
Aldundia**
Kultura Saila
Euskara Sustatzeko
Zerbitzua

**Diputación Foral
de Bizkaia**
Departamento de Cultura
Servicio de Promoción del
Euskara



**Etxebarriko Udal
EUSKALTEGIA**